

Nafar **karia**

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko abuztuaren 11 / VI. urtea / 191. zenbakia

Natur gidarien erronka

Aisialdia eta natura inoiz baino lotuago agertu dira azken aldiak Nafarroan. Udako egun hauetan landetxeak bete egiten dira, eta natur ekintzak eskaintzen dituzten enpresak sortu dira gure herrialdean. Ibilaldi

eta txango atseginen bidez ingurunea eta kultura ezagutaraztea da natur gidari berrien helburua. Etorkizuna, ordea, ez da baxterea argia eta irautea da natur gidarien erronka.



Landa turismorako enpresa berriak sortu dira aurtan Nafarroan.

Metropoli forala

FELIPE RIUS



Hannover

Edertasuna bilatzen dugu eten-gabe, bazter guztietan. Hasi-ran uste dugu armonian aurkitzen dela, lasaitasunean, orekan, baina laster ohartzeko gara itsaso baxerak aspergarriak direla, bakearen azpian ez dagoela deus ere eta zoriontsuak izateko ekaitzak behar ditugula. Orduan kaosean murgildu nahi dugu, gogoratzen gara mundua leherketa —kontrolatua ote?— baten ondorioa izan zela eta kalera ateratzen gara ordena ostikoka haustera, dena nahastera, gure izpiritua libreagoa izango delakoan. Zurrunbiloan errazagoa izango da inoiz lapurtu ziguten askatasuna berreskuratzea, esaten diogu gure buruari, eta liluraturik geratzen gara paisaia post-industrialetako bortizkeria argitzen duten ekaitz elektrikoaren aurrean. Bukolismoaren garaiak bukatu dira, munduko lore guztiak usteldu dira, oihukatzen du lagunak pospolua piztuz. Ez da konturatu dena sutan dagoela aspalditik, bera jaino baino lehenagotik, eta bere ekintza alferrikakoa izango dela, ezin da erre suntsiturik dagoena. Iraultza ezina da, soilik errebelioa geratzen da, abesten zuten Hertzainek. Eta errebelioa ere espejismo bat, amets bat besterik ez bada? Orduan kiskalitako kaleetatik aterako gara eta burua makurtuta beste nonbaitera joango gara, azkenean edertasuna aurkituko dugu, dio neska beltzaren batek ke potteen artean lasterka egiten dugun bitartean. Instant batez begiratu diot eta iruditu zait beharbada aurpegi horretan aurkitu dudala erantzuna —engainatu ziguten eta haizean ez zegoen deus—, baina kaleska batean sartu da eta sugarretan desagertzen ikusi dut. Suzko kaleetan ere ez dago etorkizunik, edertasuna beste edozein gauza bezalaxe erretzen da eta ametsa laburra izaten da. Azkenean argazki bat besterik ez da geratzen gu han izan ginela esan dezagun. Zerbait galdetzen badigute edertasunaren bila genbiltzala erantzungo dugu malenkoniak. Zurrunbiloaren erdian aldegin zigun ia eskuetan genuela eta orain ulertu dugu ez dugula sekula harrapatuko, gehienez bere islada ikusiko dugula norbaiten begietan edo horman zintzilikaturiko koadroren batean.

GURE AUKERAK

LEHIAKETA



Antsoingo 1995eko festetarako kartel lehiaketa antolatuta du Udalak. Sariketa zabalik dago parte hartu nahi duen ororentzat eta bi kategoriatan banatu da: helduak eta haurrak. Artistek edozein teknika erabili eta nahi beste lan aurkez ditzakete, baina obrek jatorrizkoak eta koloretakoak izan behar dute. Lanak Antsoingo Udaleko bulegoetara eraman behar dira eta aurkezteko epea abuztuaren 18an bukatuko da.

ERAKUSKETA



Begoña Rastrilloren margoak ikusgai daude Iruñeko San Gregorio kaleko Kaixo tabernan. Erakusketa irailaren 4ra bitartean egonen da zabalik aste osoan zehar.

Tafallako gaztetxean Chiapasi buruzko erakusketak gaur itxiko ditu ateak. Argazkiak eta EZLNren komunikatuak izanen dira ikusgai, Gazte Asanbladak antolatuta.

ANTZERKIA



Herriz Herri 95 ekitaldien barruan, Trokolo Antzerkiak 'Librotikoak' lana hiru herritan aurkeztuko du, asteburu honetan. Ostiralean, abuztuaren 11n, Larriongo plazan izanen da arratsaldeko zortzi erdietan. Larunbatean, abuztuak 12, Galipentzuko plazan ariko da, gaueko bederatzietan. Igandean, Elortzen izanen da, zazpi erdietan herriko plazan.

MUSIKA



Anje Duhalde, Tapia eta Leturia, Exkixu, Su ta gar eta Def con Dos taldeek joko dute abuztuaren 13an, igandean, Goizuetako jaiak direla eta. Lehendabiziko hirurek pilotalekuan joko dute, arratsaldeko zazpietatik aurrera, eta gainontzekoek ikastolan, hamaiketatik aurrera. EGUNKARIAK eta Goizuetako Gazte Asanbladak antolatutako kontzertuak dira. Sarrerak Katu tabernan, Torrean (Leitza), Titin (Doneztebe) eta Atxaspin (Lesaka) salduko dira.

Balardi Balardi taldeak Donezteben (gaur), Lesakan (bihar) Leitza (igandean) eta Arbonan (astelehena) joko du, IKAK herri hauetan antolatuta dituen barnetegian.

ZINEMA



Araitz-Beteluko udal euskara zerbitzuak antolatutako 'zinema udan' sailaren barruan, heldu den ostegunean, abuztuak 17, 'Hire neska jota zegok' umorezko filmea ikusgai izanen da Uztegin. Era berean, Herriz herri 95ek antolatuta, 'Bastianen abenturak: Amaigabeko historia III' filmea eskainiko dute hiru herritan, gaueko hamarretan. Ostiralean, abuztuaren 11n, Olkozko kanpan; larunbatean Urzainkiko frontoian eta igandean Arbeizako plazan.

BERTSO JAIA



Leitzako festetan, bertso jaialdia izanen da heldu den astelehenean, hilak 14, zinemaren. Bertan, Iturriaga, Murua, Lujanbio eta Peñagarikano bertsolariak ariko dira kantari.

NAFAR KRONIKA

JON ALONSO

Iparreko Zemaia

Uda honetan Nafarroa erdia dabil Donostia inguruetan, alderai, etxeko bidea topatu ezinik, ibildaun, Zarrutzen, Pasaian, Intxaurren (Intxaurren !!) edo Errenterian, errepide amaurren preso, irteera topatu ezinik, Heine-ren *Holandar* hura itsasoz bezala baina are galduago. Uda honetan, estatistikek, inkestek eta *iritzi publikoak* deitzen den izaki lauso horren gainean egiten diren manipulazioek oro kontuan hartu behar

ko lukete egunez eta gauez, uneoro, badagoela biztanleriaren portzentaia estimagarri bat Iparreko autobian zehar barreiatu, noraezean. Indar faktikoa izatera iritsi liteke. Adibidez, garai batean, probintziaren une garrantzikoenetan hainbatek soakoa Madrili buruz zuzendu—beste hainbatek ez zuen behar, beti hari so baitago— eta 'Madrilgo Nafarre' zer pentsatzen zuten galdetzen zuen bezala, egun, edozein erabaki garrantziko hartzeko garaian gure klase politikoak galdera hau egin beharko dio bere buruari: «Bai, ongi da, baina... zer irudituko zaie erabaki hau Autobiako nafarrei?». Belaten kainoiak kendu zizkigutenetik edo eta Inazio Iruñeko karraketan inbasoreekin lerratzen zenetik ez zen ezagutzen hau bezalako laidorik. Lasaitu gaitu,

ordea, Odonek saioa egingo duela nafarrak etxera itzul daitezen jakiteak. Berriki kontatu dit lagun batek Alemaniako saihesbiderik engainagarriak eta Frantzia alderik alde onez zeharkatu ondoren Donostiatik irtetea galdu zela. Nahikoa izango al da Odon I Kaskasoiaren ahalegin alimalea, eskerga, milaka nafar despistatu eta dorpe horiek guztiak etxeratu ahal izateko?

Iruñeko gartzelako intsumituak, zeinen aldiroko kroniken debotoa aitortzen baitut nire burua, usu arrenkuratzen dira euren egoera injustuak eta askatasun gabeziak; alabaina, ez dute arrenkurarako arrazoirik. Kartzelan preso ez izatera, bi kilometro orduko abiadurarekin narrazten den kotxe-lerro amaitezin batean egongo lirateke preso, gainerakoak bezala, egun batean bai eta bestean ere bai trabeska gelditu den kamiozlar bat dela kausa. Ia beti

gaude preso: aurrerapenaren, grinaren, lanaren, familiaren, legearen preso, eta irudimezez baizik ez gara libre.

Garraiolariak zioten autobia arriskutsua zela, eta datorren negurako iragartzen zituzten katastrofe handiak. Denboraz okertu dira bakarrik: negurik batere gabe autobiak, hagitz tarte laburrean, urteetako gatazka zornetsuak baino aise biktima gehiago eragin ditu. Baina horrelakoek ez dute gizartea benetan inarosten, eta bestetuetan jantziak urratu ezezik espantu handiak ere egiten dituzten berberak orain mutu. Aiseago horiek balizko aurrerapenak eskatzen duen prezioa ordaintzearen alde irtenbide politikoak eska leza keena ordaintzearen alde baino.

Negua magal lainotsuan osatuko duela gure ergelkeria guztien gaineko mendekua iragarri omen du, zemaikor.




ASTEKO PERTSONAIK



Antonio Perez Prados
NUPEko errektorea

Antonio Perez Prados sesmarrak asteartean Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) errektore kargua zin egin zuen ofizialki Nafarroako Jauregian. Kudeaketan sektore guztien partaidetza bultzatzea eta ikasketak sendotzea du helburu nagusia errektore berriak. Era berean, euskara unibertsitatean uztartzeko asmoa adierazi zuen. Perez Prados NUPEk bere historia laburrean duen laugarren errektorea da, eta lehen nafarra. Gainera, unibertsitateko estatutuei jarraiki ateratako Klaustroak aukeratu duen aurrenekoa da. Nahiz eta bere herrira, Sesmara, maiz joaten den, egun Iruñean bizi da. 41 urte ditu, ezkontuta dago eta bi seme-alaben aita da. Estatistika eta Ikerketa Operatiboan da katedradun.



Alfonso Sastre
Idazlea

Alfonso Sastren 'Non zaude, Ulalume, non zaude?' antzezlanak aurkeztu zuen atzo Iruñeko Gaiarre antzokian Eolo konpainia bizkaitarrak. Sastren lanak Nafarroako Jaialdien egitarauaren barruko antzerki zikloari amaiera eman zion. Obraren egileak behin baino gehiagotan adierazi du idatzi dituen antzerki lanen artean hau duela gustokoena, eta, era berean, aipatu izan du berori izanen dela idazten duen azken antzezlanak. 'Non zaude, Ulalume, non zaude?' lanak Edgar Allan Poe idazlearen azken egunak kontatzen ditu. Sastre Madrilen jaio zen 1926an, baina egun Hondarribian bizi da. Hainbat sari jaso ditu idatzi dituen lanengatik. Hala ere, bere uztar oparoenak antzerkian eman ditu, antzezlan ugari idatzi baititu.

IKASTAROAK



Nafarroako Antzerki Eskolak (NAE) bederatzigarren urtez jarraian, udako ikastaroak antolatuta ditu. Lehenengoak uztailan egin ziren eta arrakasta handia izan zuten. Ikastaroek bi aukera eskaintzen dituzte: batean, umeentzako jokoak eta antzerkia egiteko aukera dago; bestean, aldiz, eszenografia, esgrima, gidoi idazketa, interpretazioa eta zuzendaritza ikastaroak dira aukeratzekoak. Maite Pascual, Nafarroako Antzerki Eskolako zuzendariak dioenez, aurrean aipatu ikastaroak antzerkigintzan jadanik lanean aritu direnei zuzentzen zaizkie, ikasketak hauek guztiek zerikusi zuzena baitute arte honekin. Ikastaroetan izena emateko epea abuztuaren 14an, astelehena, akituko da eta jadanik plaza gutxi gelditzen dira. Izen ematea NAEk Iruñeko San Agustín kaleko bosgarren zenbakian duen tokian egin daiteke, edo 22 92 39 telefonora deituz. Bulegoa goizeko bederatzietatik arratsaldeko ordu bietara bitarte dago zabalik.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Kartzelako gala

Juan Kruz Lakasta

Kristoren tipoa naiz Aaaaaaaag!

1991ko uztailaren 8an Cadizko San Fernando koartelean egon behar nuen, baina ez nintzen bertaratu. Joan den azarora arte ez ninduten epaitu. 1991n indarrean zen kartzela zigorra ezarri zidaten, urtebetekoa hain zuzen ere. Gaur egun, ordea, bi urte, lau hilabete eta egun bateko zigorra ezartzen diete intsumituei. Ezberdintasuna ez zitzaidan zilegi iruditzen. Hori dela eta, ez nuen baldintzapeko askatasuna onartu. Aurtengo urtarrilaren 16an kartzelan sartu ninduten, eta astebeste geroago hirugarren gradu eman zidaten. Hau da, kartzelara gaua pasatzera besterik ez nuen joan behar. Ez nuen, baina, nere kontzientzia antimilitarista eta borrokarako grina prezio merkean saldu nahi, eta baldintzapeko askatasunari bezala, hirugarren graduari ere uko egin nion.

Kartzelan, egungo kode penalaren arabera, bi erredentzio mota ematen dizkizute. Lehenik eta behin, ordinariora: kartzelan igarotzen duzun egun pare bakoitzatik beste egun bat 'oparitzen' dizute. Bestalde, extraordinarioak daude: edozein ikastaro edo lan egiteagatik zenbait egun 'ematen' dizkizute. Erredentzio horiek guztiak bi parte —zigor— jasaten dituzun arte jasotzen dituzu. Nik euskaraz errekurritzen ditut parteak, horrek —besteak beste— asko luzatzen duelako errekurritze prozesua, eta hori dela-eta orain arte erredentzioak bata bestearen atzetik jaso ditut. Horiek guztiak aintzat hartuz, astebete barru ate-



rako nintzateke kalera. Esan bezala, alta, nere kideek bi urte, lau hilabete eta egun bateko zigorra bete behar izaten dute, eta haieki-ko elkartasunagatik erredentzioei uko egin diet, Lerro hauek idatzi baino zertxobait lehentxeago jakinarazi didate uko egitea onartu dutela, eta ez naizela urtarrilaren 16ra arte kalera aterako. Badiudi gauzak oso argi dauzkadala, ezta? Kristoren tipoa naizela ematen du, ezta? Bada, bai, hala da. Kristoren tipoa izateagatik eta gauzak oso argi edukitzeagatik bere burua gorrotatzen duen tipoa naiz.

Kalera, atera nahi duuuuu! Aaaaaag!!

Miguel Indurain klasikoa igandean

JON ABRIL / BERA

Igande honetan, abuztuaren 13an, Miguel Indurain txirrindularientzako klasikoa korrituko da Beran, inguruko herrietatik ibilbide erakargarri eta itxurosoa eginez. Laugarren edizio honetan, beti bezala, txirrindulariek bi ibilbide izanen dituzte aukeran. Ausartenek, 183 kilometroko ibilbidea izango dute, Beratik abiatuta, Doneztebe, Beintza, Ultzama, Belate, Elizondo, Otsondo, Dantzarina, Sara, Lizarrieta gaina eta Etxalar zeharkatzeko. Beran izango da amaiera. Beste zirkuituak 106 kilometro ditu, eta Beratik Mu-gairira doa. Hemendik Elizondora eta Berara bertze ibilbideko bide bera jarraituko dute txirrindulariek.

Beratarra Txirrindularitza Taldeak antolatu duen proba honek urtetik urtera zaletu gehiago du. Orain hiru urte, parte-hartzaileak 500 inguru izan ziren, hurrengo urtean 750 inguru eta ia 980. Aurten, mila txirrin-



Ez dute ziurtatu Indurain izanen den.

dularitik gora biltzea espero dute antolatzaileek.

Aurreko edizioei begira, txirrindulariak batez ere Ipar zein Hego Euskal Herriatik etorrita-

koak izan dira, baina Espainia eta Frantziako partaideak ere ugari izan ohi dira. Txirrindulariek NANA eraman beharko dute eta aurretik izena eman. Horretara-

ko, igandean bertan, goizeko zazpiak arte izango dute aukerarik edo bihar bertan, larunbata goizeko 10.00etatik 13.00ak arte eta 15.00etatik 20.00ak arte. Proba honetan parte hartzeko mila pezeta (40 libera inguru) ordaindu beharko dute.

Urtero bezala, probaren ondoren, afaria egiten dute. Miguel Indurain bertan izango den ziurtatuta ez dagoen arren, bere senide edo familiarok azalduko dela esan dute antolatzaileek.

Goizeko zortzietan irtengo dira Altxateko plazatik txirrindulari guztiak eta beranduenez arratsaldeko bostetarako iritsiko dira. Proba hau antolatzeke hainbat enpresaren laguntza jasoko dute Beratarra elkartekoek, adibidez Nafarroako Gobernuak, Kirol eta Gazteria Sailarena.

Gogoratu behar da hainbat urtetan txirrindulari talde honek Euskal Herriko Itzuliko etapa bat prestatu duela eta aurten, hama-hiru urteren buruan, diru eskasiaz zela eta, antolatzeari utzi behar izan diotela.

Amaiur

Bestak asteleheneretik

AMAIUR

Herriko besten hasiera izanen da heldu den astelehenean, hilak 14, suzirikin eta riau-riauarekin. Bost egunetan zehar, musika, dantzaldiak, gasna-lehiaketak eta kirol anitz izango dira. Denen artean azpimarratzekoa da asteartean egiten den XX. Artzain-zakur txapelketa, Xanparti omenaldia izenekoa. Arratsaldeko bostetan hasiko da, eta bukatutakoan gasna-lehiaketako sarien banaketa eta haien enkantea egiten da.

Baina astelehenean ere izanen da zer ospatu. Arratsaldeko zortzietan jaugatik da suziriria eta gero izanen den riau-riauaren ondoren, bederatzietan, Baztan Zopak izanen dira. Txartela hartu nahi duenak Urdazubin, Elizondon, Erratzun eta Amaiurren egin dezake. Ordu batetik bostetara gaupasa izango da Akelarre taldearekin, eta amaieran zingar-jatea monumentuan bertan.

Asteartean, Ama Birjinaren meza nagusia izanen da goizeko 11etan, eta ondoren III. Baztan-Urdazubi-Zugarramurdiko Gasna Lehiaketa. Eguerdian kros lasterketa dago iragarrita, eta 12.30etan hamaiketako, kanpoan bizi diren herritarrendako. Arratsaldeko 4.30etan artzain-zakurren desfilea izanen da, eta gero zakur txapelketa. 7etan he-

rri kirola antolatu dute, Zuraide, Lesakako Beti-Gazte eta Amaiurko taldeen arteko sokatira lehiaketa batekin. Ondoren, toki berean, Baztan eta Amaiurko Haur Dantzarien saioaren emanaldia, eta 8etatik 10etara bitarte, dantzaldia Almen taldearekin. Gaueko 10etan mutil-dantzak eta larrain-dantza izanen da, eta 11etan sokamuturra. Ondoren, 3.30ak arte, dantzaldia berriro Almen taldearekin.

Asteazkenean Haurren II. Pilota txapelketako egiten da goizean, eta arratsaldeko 5etan, haurrentzat ikuskizunak izanen dira. Arrastirian, dantzaldia dago iragarrita, Iñazki taldearekin, eta mutil-dantzak, herriko afaria eta sokamuturra. Ostegunean atsedeen eguna izanen da, eta ortziraletan, hilak 18, arratsaldeko ordu bietan izanen den zikero-jatearekin hasiko da eguna. Ondoren dantzaldia izanen da Drindots taldearekin, eta mutil-dantzak eta sokamuturra.

Larunbatean, hilak 19, Baztango II. Mountain Bike bilkura antolatu da arratsaldeko 4.30etarako, eta 8etan kantaldia izanen da Pottoka eta Balerdi Balerdi taldeekin. Ohiko mutil-dantzen eta sokamuturren ondoren, gaupasa egin ahal izango da Dindrots taldearekin, eta goizeko 6etan zingar-jatea izanen da monumentuaren aurrean. Orduantxe amaituko dira bestak.

GOIZUETAN ABUZTUAK 13

goizuetan gunkaria

7etan Anje duhalde

Tapia eta Leturia Band

Exkixu

11etan Su Ta Gar

Def Con Dos SARRERAK:

AURREZ: Duhalde, Tapia eta Leturia, Exkixu: 1000pzta 45 l.

AURREZ BONOIA: Duhalde, Tapia eta Leturia, Exkixu, Su Ta Gar, Def Con Dos 1300pzta 60 l.

EGUN BEREAN:.....1500pzta 70 l.

Aisiarako gidariak

EDURNE EUZONDO / IRUNEA

Nafarroako landetxe guztiak bete egin dira udako egun hauean. Guztira eskaintzen dituzten 1.651 plazak eskas gelditu dira, kanpotik eta baita Euskal Herriko gainontzeko herrialdeetatik gurera hurbildu diren bisitarientzat. Aisia eta natura inoiz baino lotuago daude, eta Nafarroan ere sortu dira natur ekintzak antolatzen dituzten hainbat enpresa.

Mikel Zalbak eta Lorenzo Aranguren udaren hasieran sortu duten Ku Ku enpresa horietako bat da. Enpresa honek nekazaritza turismoaren aldeko apustu garbia egin du, eta turismo berdea delakoak egiten duen bezala, bertan eta bertakoentzat lan egitea da bere filosofia. «bertakoa bultzatu eta dirua ere bertan uzteko asmoz».

Natur gidaritza da Ku Ku enpresak egiten duen eskaintza. Erronkari, Erro, Irati, Arbaiun eta Ilunberriko haitzebakieta antolatzen dituzte egun erdiko eta egun osoko ibilaldiak. Hala ere, ibilaldia bera baino areago, bidean zehar ikus eta ikas dezaketena da Ku Ku enpresako arduradunentzat garrantzitsua, hau da, «erliebea interpretatzea, finean».

Uztailaren azken astean jarri zuten Ku Ku enpresa martxan, baina dagoeneko hasi dira negurako ere hainbat ekitaldi prestatzen, ikastetxei zuzenduta batez ere. Izan ere, Zalbaren ustez bertakoekin lan egitea da euren aukera bakarra, «kanpotarrak hiltzete bakarerrako baino ez baitira etortzen oporetan».

Mikel Zalbaren ustez, filosofia jakin batekin sortu da natur gidaritza, nekazaritza turismoari

Bgunetik egunera, adituek diotenez, gero eta garrantzi handiago ematen diogu aisiari eta kontu handiz aukeratzen dugu gure denbora nola eta zertan erabili. Natur ekintzen alorrean, Nafarroan, eskaintza zabala da azken aldian sortu diren hainbat enpresari esker. Ingurunea eta natura aztertu eta ohiturak eta kultura ezagutu. Txango eta ibilaldien bidez turismoa bultzatzea da natur gidarien helburua.

estuki lotuta. «Natura ere turismo gaitzat hartzen da eta halaxe saltzen da». Bere hitzetan, sendermoari lotua sortu da natur gidaritza, hau da, «oinez natura ezagutzeko eta ahal den neurrian ingurunea mantentzeko lagungarria den jardura da».

Horretaz gain, «dirua bertan uzteko» helburua ere badu edo izan beharko luke natur gidariak, Mikel Zalbaren ustez. Gure herrialdean, hala ere, gidaria hartzeko ohiturarik ez dago oraindik Zalbaren iritziz, «mendia ongi ezagutzen dugula uste baitugu denok». Bestalde, Nafarroako Gobernuak asko bultzatu ditu landetxeak, Ku Ku enpresako arduradunaren ustez; hau da, «non lo egin eta non jan, baina ez, ordea, zer egin. Hutsune handia nabari da alor horretan».

Bertako gidariak izatea ere bada, Zalbaren ustean, bertakoa eta nekazaritza turismoa bultzatzeko beste bide bat. Hau lortzea, ordea, ez da dirudien bezain erraza, «kontuan hartu behar baitugu nolakoak diren hemengo baserri-tarrak. Ardiak zaintzeaz gain, bestelako jardueraren batean lan egin behar dutela ulertaraztea zaila da».

«PROMOZIOA DA GARRANTZITSUENA» Erreka da aisiaren inguruan Nafarroan sortu den beste enpresetako bat. Orain dela urtebete sortu zen Erreka Izaban, baina irailaz geroztik Iruñean du bulegoa. «Edonork egin ditzaizkeen ibilaldiak» antolatzen dituzte Nafarroako txokoak eta baita bertako kultura eta ohiturak ezagutarazteko. Mikel Olo eta Carolina Paton dira arduradunak. Naturan ibilaldiak antola-



Natur gidarien eskutik hamaika ibilaldi egiteko aukera dago Nafarroan

teaz gain, Iruñeko eta Nafarroako beste hainbat herritan ere egiten dituzte txangoak, bisitari, eskola eta abarrentzat. Ku Ku enpresa ez bezala, ez da zehazki nekazaritza turismoa bultzatzea Erreka kideen helburu nagusia, «guretzat turismoa bakarra baita, orokorra, ez dugu nekazaritza turismoa bereizten».

Mikel Zalbak bezala, ordea, aisiaren inguruko ekitaldiak ez direla behar bezala bultzatzen

uste du Mikel Ollok ere, eta geroa begira, enpresa guztien elkarlana izango litzateke egokiena eta eraginkorrena bere ustez. Beste hainbat lekutan oso bestelakoa da enpresa hauen egoera, Ollok erraten duenez: «Asturiasen, esate baterako, gure moduko ekintzak antolatzen dituzten enpresen gida argitaratzen du bertako Gobernuak. Nafarroan, ordea, ez da halakorik gertatzen». Olloren iritziz, promozioa da

Bertakoekin egin behar dugu lan, kanpotarrak hiltzete bakarerrako etortzen baitira».

Natura ere turismo gaitzat hartzen da eta halaxe saltzen da».

Erreka bezala aisiaren inguruan diharduten enpresak gehien behar dutena. Baina lan zaila da hori Erreka gidariaren ustez, «enpresa txikiak bakarra. Ekonomia ez dugu eragin handirik eta ez gaituzte aintzakotzat hartzen».

Aisiaren inguruan sortutako enpresak, hala ere, gutxi batzuegana baino ez dira ailegatzten, eta udan sortu eta natur



Enpresa txikiak gara, ekonomian ez dugu eragin handirik eta ez gaituzte aintzakotzat hartzen».

ekintzak antolatzen dituzten talde asko desagertu egiten dira negua iristen denean. Azken aldiaren enpresa edo talde ugari agertu bada ere, «horietako zenbatak jarraituko duen ikusteke dago oraindik» Mikel Zalba Ku Ku enpresako arduradunaren ustez. Mikel Olloren arabera ere, «gutxi dira oraingo erroto diren enpresak».

Ama hizkuntza eta hizkuntza ama

1. Liburuzaleak seguruen badaki ARKAKUSO 'kulturren zerbitzariak' entziklopediaren berri. Artean gure aitamak gazteak zirela, 'liburuxka haundiak' irakurgai ziren peza t'erdia truke, «zientzia, arte, teknika, literatura, historia, biologiak, biografiak eta abarren mundu miresgarria zure eskura». Bete iruditutako argitaketak euskaldunek bere egiteko moduko formula zela, MAMUT entziklopediei ekin aurretikoa, edo aldi berekoa. Alde onak hartuz eta akatsak (eleberrien laburpen basatiak, kasu) baztertuz. Aldiro aldiro aletxo bat, zein baino zein bitxiago. Eta dozenaka, ehundaka egile, bakarka zein taldeka, nor bere bitxikeriarekin. Zer herrik du, bestela ere, Euskal Herriak hainbeste gazte, eta ez hain gazte, kulturaren ohekide?

Agian oker nago, eta neurritz kanpoko giza-ondasun horrek mesede baino kalte egingo zion kulturari. Agian hobe arkakuso jarraitzen badute euskaltegi euskaltegi, kultur mamut-ama baten emaldiaren zain, mamut-ume batez noiz erdituko... Baina ni beste kontu baten harira nihoan ARKAKUSO 'jakintzak ez du lekurik kentzen' entziklopedia aipatzean.

Izan ere, 309. alean —'Izuritik Penizilinara'— gogora ekarri zuen zoritxarreko lege bat, duela bi mende Ingalaterran indarrean egondakoa. Lege horren arabera etxe guztietako leihoak, berdin jauregi edo etxoletoak, zergagarriak ziren.

2. Seguruenik historialariak ezaguna du, zuzen diezadan zuzendu beharrekoa: leihoak luxu-gaiak bihurtuta edo, etxean haize freskoa edo eurgaria nahi zuenak leihoak hainbeste zor zuten. Ondorioz, herri xeheak leiho gehienak itxi behar izan zituen, eta hori ez baitzen nahikoa izan, 'a cal y canto' tapatu —kondenatu—.

Neurri logikoa, bestalde, ezi ahaztu begiak galdutako zuten gizarajoa, horrela zigortua zirrikitu batetik begiradaxo bat bota zuelako lady Godiva etxe parean pasa zela beste zerga baten protestan —ikus 733. alea, 'Biluzia-

rriaren Maskara'—. Besteak beste.

3. Nere gogoetak bazterri-ldo batetik doaz ordea. Otsail aldean EGUNKARIAN Endrike Knörr kexu azaldu zen euskara 'gizarteko anti-eredu' ondoan plazaratzen bide baita gehienetan. «Erakargarritasun eta imitagarritasun gutxi» arkakusoen besalagun. Nik neuk ez diot ukatuko euskari mamutekin besarka ibiltzeko eskubidea, ezta komenientzia zalantzan jarriko ere. Bakarriz gogora ekarri zera: gizarteko ereduak leku gehiegirik kentzen dutela.

Klase guztietako euskaltegi-barnetegietan barna ibilia naiz eta beti harritu nau ikaskide 'imitazinen' proportzioak, arinaiztar 'aipaezin' eta 'gizartean aurkezten' kopuruak... Oro har, jende nabarmengarri faltak: bakarren batek halako distiraldin baldin bazekarren erdal mundutik, talde ilun haietan eta euskara traketsean zulo-ratu orduko itzali.

Tira, ez dakit gai honek ikerketa soziologiko serio bat mereziko lukeen. Zenbat emakumezko gizonezkoen aldean. Zenbat langile meritu-gile bakoitzeko. Zenbat langabetu, nortasunagabetu, gizarteagabetu... Momentuz 'kutsidazu Bidea Ixabel-ekin' —1081. alea— farre

Edota zer eragin izan zuen lege hark higie faltan eta izurriten hedapenean: birusa etxetik urrun mantendu, baina etxeratuz gero ateraezin —981. alea, 'Herio Go-



egin beharko. Nik noren eta jende ixilaren izenean —ez ordezkari, noski— hitz egin nahi bainuen.

Guk jende ixil hark ere euskara ez genuen ama-hizkuntza, eta gainera ezin esan euskara tradizionalki xamurra izan denik gure gisakoe-kin. Ez genuen espero, bestalde, ikasbidea gure neurri-eragina egongo zenik. Baina nonbait ere euskararen bilantzen genuen gure Hizkuntza-ama. Agian euskara bera ikusten baikenuen geure gisako: gizartean arrotz, ezeroso, oztopo; gizarte lege eta arau mugiezine

Orbaitzetatik Donibane-Garazira

● Erreka eta Ku Ku enpresek, beste askok bezala, Orbaitzetatik aldean aukeratu dute euren ibilaldiak antolatze-ko. Ku Ku enpresako gidariak asteartero biltzen dira bertan euren bezeroekin goizeko bederatzietan txangoari hasiera emateko. Orbaitzetatik atzeratzen diren euren bilgunea eta bertatik, Atsegiko leporaino abiatzen dira pagadiak zeharkatuz. Basoak nola ustiatzen diren erakusten dute bertan, aspaldiko jardueren berri emanez. Trikuharriak, artzainen txabolak, bazkatokiak eta bestelakoak ere izaten dituzte ikusgai bidean zehar. Itzultzeko Mendizarreko erreserba naturalaren ingurua aukeratu dute Ku Ku enpresako gidariak. Bide zaharretan barrena abiatzen dira berriro Orbaitzetako armaolara.

Erreka gidariak ibilbide ezberdina egiten dute leku beretik hasita. Armaolatik Orreagan abiatzen dira eta bertatik, berriz, Donibane-Garazira. Ibilaldi hori bada ere, taldearen asmoen arabera aldaketak ere egiten dituzte gidariak, beste leku batzuetara joanez.

HIRU AUKERA

Orreagan barrena

● Ostegunero Orreagatik abiatzen dira Mikel Zalba eta Lorenzo Aranguren. Ku Ku enpresako gidariak, bezeroekin. Bederatzietan biltzen dira bertako turismo bulegoan eta Iparraldera doan bide zaharretik Ibañetara abiatzen dira. Bertara ailegatuta, Lindusko bidea hartzen dute. Pirinioetako leporik baxuenetarikoa da Linduskoa, eta hegaztien pasaera ikusteko leku aproposa. Hori dela eta, bidean zehar egiten dituzten pausaldien artean azpimarratzekoa da Linduskoa. Ibilaldian zehar, gerra garaiko trintxerak eta bunkerrak ikusteko aukera ere izaten dute ibiltariak.

Urteko sasoiaren arabera, bestalde, gauza ezberdin asko ikus daitezke, Ku Ku enpresako Mikel Zalba gidariaren hitzetan. Halaber, Orbaitzetatik ateratzen den ibilaldian bezalaxe, pagadien ustiaketa ikusteko aukera ere badute taldekideek bidean zehar. Lindustik Orreagan abiatzen dira berriro bide zaharretatik, eta turismo bulegoan amaitutaz ematen dute baso artean eginiko txango ikusgarri hau.

Bardeetan hamaika ibilaldi

● Bardeetara ere ailegatu dira Erreka gidariak eta, hainbat ibilaldi prestatu dituzte bai oinez zein bizikletaz egiteko. Piskerra aldea ezagutzeko aproposa da horietako bat. Ibilaldi motza da eta han dauden ton-toretan zehar barnertzen dira ibiltariak. Bardea Beltza ezagutzeko aukera eskaintzen du Erreka arduradunek prestatutako beste ibilaldi batek.

Kortes aldetik sartzen dira taldekideak Bardeetan eta handik abiatuz Bardea Beltzeko txokoak zeharkatzen dituzte. Ontzaren Txokoa deritzen lekura ere ailega daitezke ibiltariak. Bizikletaz, bestalde, beste hamaika ibilaldi egiteko aukera ere badute bisitariak, Nafarroako bazterrik harrigarrietakoa den paraje eder honetan.

Eta goizean Bardeak ezagutu ondoren, arratsalde-rako hainbat herri ezagutu ditzakete taldekideek Erreka gidariaren eskutik. Horien artean, Olivako monasteriora ailegatzeko den txangoa da azpimarratzekoa, beste batzuen artean.

Kritikontzi



«Katalandarra, alemandarra, txetxendarra...»

XANTI BEGIRISTAIN

Badakit jentilizioaren arazo hau alde batek konplexu samarra dela, baina bestetik esan behar da gauza batzuk behintzat oso garbi daudela. Oso oker ez bago esan genezake jentilizioa herri (hiri, herrialde, nazio) izen bati erantsi behar zaiola (etxarri-ar, gasteiz-tar, larraun-dar, egipto-ar) eta ez beste erdal jentilizio bati gaur egun nabarmenki modan jartzen ari diren bezalaxe hainbat pertsonaren artean. Eta esandako hau guztia pixka bat ilustratzeko adieraziko dizuet nik Iturruma auzoko 'Beheko Borda' honetatik honelako hitz desegoki hauek entzuten ditudala ia-ia egunero euskal komunikabideetan: 'arabear, musulmandar, alemandar, katalandar, kanadiar, txetxendar, marrokiar, palestindar, europear, zeltiar' eta abar, eta abar. Askoz gehiago izan litezke.

Ohiko esaldia da azaldu behar direla pekatuak eta ez pekatariak, baina niri une honetan 'pekatari' izenak aipatzea ere interesatzen zait hobendun bakoitza damu dadin eta jakin dezan zer 'penitentzia' mota jarri behar dion bere buruari

kontzientzi-zama arintzeko. Besterik gabe ba, esan dezadan gure etxeko zulotik honako irrati-telebista euskaldun hauek entzuten ditudala eskuarki: ETB1, Euskadi Irratia, Euskadi Gaztea, Telenavarra, Egin Irratia eta Euskalerrria Irratia. Honekin, inondik inora ere ez dut esan nahi komunikabide horietako hizlari guztiek eta beti gaizki esaten dutela gauza oro, baina bai batzuek sarri-askotan. Norberak jakingo ditu bere akatsak; ni lekuko hutsa nauzue eta huts egiteak baieztatu baino ez dut egiten.

Ni gai honetaz batere aditua izan gabe ausartuko nintzateke esatera fenomeno hau erlatiboki berri samarra dela. Euskal Herriko pertsona euskaldun beste horrelakoak, esate baterako: gipuzkoanoa, frantsesa, espainola, baionesa, inglesa (ingelese), italianoa, alemana, katalana, eta abar, baina inola ere ez zitzaien entzuten euskal eta erdal jentilizioak nahasten, konparazioa: 'frantsestarra, espainolarra, madrileinoarra, gipuzkoanoarra, errusoarra' eta abar.

Honetan guztian arrisku nabarmen bat ikusten dut, alegia,

gure belarriak entzunaren entzunez ohitu egiten dira eta honelako 'bonbaketa' hain sarri jasan ondoren, pentsa genezake hitz horiek ongi daudela, dotoreak direla eta gaztelarerekin antz handiago dutenez gero egokiagoak direla. Erne beraz, euskal komunikabideetako arduradun zaretzen guztiok, eta batez ere diru publikoz hornituriko erakunde/entrepresetan aritzen zaretzenok (ETB1, Euskadi Irratia, Euskadi Gaztea, Telenavarra, eta abar), zeren eta egin ditzakezuen mese-deak eta kalteak dezente handiak baitira.

Hasieran esan dudana bezalaxe badakit afera hau luzea eta korapilatsua izan litekeela, hortxe daude adibidez '-ar', '-tar', '-dar', 'Lasatar', 'arrokigesa', 'txetxena', 'txinatar-txinar' eta abarreko kontuak. Ni ez naiz gai horiek guztiak argitzeko; horretarako daude Euskaltzaindiko adituak eta hortik kanpoko beste pertsona trebe asko ere bai.

Gauza bakar bat eskatzen dut: arren, ez ditzagula gehiago nahas garbi dauden eta errazak diren esakerak.

Nahasmendurik ez, mese-dez!

Klasiko bitxi arrant klasiko

Joxemiel Bidador

Berako ekarpen joria (I)

'Hiru beratarren euskal bertsoak' izenburuko idazkian azaldu diren idazleak



Benetan oso emankorra da Bortzirietako Bera herriak euskal kultur arlo urrian eskaini izan digun zitu zoria. 1980. urtean eta aspaldi ospatzen ziren Euskal besten mendeurrenaren aitza-kiaz, Berako udal batzarrak onartuta bai eta bultzatuta ere, eta Joaquin Goia eta N. Kortazar bikoteak ondua, *Hiru beratarren euskal bertsoak* izenburuko idazkia agertu zen bertan, Uharteren etxean moldizkiratua hain zuzen ere. Aipatu hiruretan lehendabizikoa Ignazio Larramendi Del Puerto espartingilea dugu. Altxateko Errikoitxiako semea, 1874an sortua. Gizon xumea, umila, ona omen. Etxalarako Txebertzeko Asuntzion Arburuarekin ezkondua. 12 seme-alaba izan zituzten, haietako bat Juanito pintore famatua.

Laguna zuen Irungo Joan Barsurkorekin parekatua izan den bertsolari fin honek ezer gutxi utzi zigun izkiriaturik; hala ere, *Olerkiak* izenburuko lana Zarauzko Itxaropenaren eskutik agertu zen zendu urte berean, 1960an alegia. Bertan, besteak beste, bere herriaren omenezko gorazarrea dakar honela: '*Etorri zatez egun batian, xoko on hau ikustera, ibilaldi bat eginen dugu, herrian lau aldetara, begi zabalaz begitu ongi, alde bat eta bertzera, harriturikan erranen duzu, zeñen polita den Bera*'.

Larramendi hau kantari ona omen zen, abots ederreko tenorea, eta honen froga garbia Alfonso XIII.aren ezkontzan aritu zela kantari dugu. Dena den, ez zuen helburu handirik horretan, eta parrokiako koroan soilik aritu zen kantetan berrogeita hamar urtez gutxienez. Nafarroako ordezkariak eskaturik, euskaltzain izendatu zuen akademiak.

Aita Erroman Dornaku Olaxtea, kaputxinotarren artean Erroman Maria Berakoa bezala ezagunagoa datekeena, bigarrena dugu esan liburuxkan. 1878an sortua, hamabi anai-arrebetan txikerra zen Illeketako Alzugaraikoa, eta besteetan hemen jada esan den gisan, hauxe ere *ordo minor* delakoan sartu eta Filipina uharteetara igorri zuen aita nagusiak.

Gaztetan misioetara abiatzeak hizkuntza ugari ikasteko aukera eman zion, sasoi ezin hobe baina baitzegoen horretarako, eta horrela, hamalau hizkuntza ongi zerabilzkien: euskaraz gainera, frantsesa, espainola, ingelesa, italiara, latinera, greziera, hebraiera, bikola, panpangoa, pagasinanera, tagalao, txamorroa eta niponera. Arribatzen zen leku berri guztietan bertako hiztegi bat onten saiatzen zen, bertaratzen ziren misiolari berri guztiek hango hizkuntza errazago ikasi ahal zezaten.




■ Iruñeko hiria' xake torneo irekiko laugarren jardunaldiko partida, 1994ko abenduaren 3an jokatu.

Sergio Estremera, (Espainia) 2.365 ELOkoa — **Davor Komljenovic**, (Kroazia) 2.465 ELOkoa.

1.d4,Zf6; 2.c4,c5; 3.d5,b5; 4.b5,a6; 5.e3,b5; 6.Ab5. Irtenaldi honekin beltzek peoi bat eman dute, gero erasotzeko zuloak aurkitzeko. 6...Da5 xa; 7.Zc3,Ab7; 8.e4. Txuriek espazioei garrantzia eman diete: peoia itzuli, erosoago ibiltzeko. 8...Ze4; 9.gZ-e2; Zd6; 10.Ad3,Ad5. Partidaren planteamendua aldatu da. Orain txuriak dira lekua bilatu dutenak. 11.0-0,Ae6; 12.f4,g6; 13.Ze4,Zf5; 14.4Z-g3,Zc6; 15.Zf5,f5. Korapiloak, nagusi. Orain zuloa beltzentzat, erdigunea txurien ikusmiran gelditu delarik. 16.Zg3,c4; 17.Ac2,h5;

18.Zh5. Peoiak soberan daudela dirudi. Beltzek eraso hobearren truke eskaini dute. 18...Zb4; 19.Zg3,Db6 xa; 20.Eh1,Ag7; 21.a3,Ze2; 22.Dc2,Db5; 23.Gb1,Db3. Ikus Koadroa. Ezustean, alde horretan erabakiko dute beltzek. Aldaketa beharrezkoa da, eta peoi hori ziri zorrotza bihurtuko da.

24.Db3,b3; 25.Ad2,d6; 26.fZ-c1.Ed7; 27.Ac3,Ac3; 28.Gc3,hG-c8; 29.Ze2,Ac4; 30.Zd4,Ad5; 31.bG-c1,Gc3; 32.Gc3,Ga3. Kolpe gogorra. Txuriak defentsarik gabe geratu dira. 33.h4,Ga2; 34.Zf5,Gb2; 35.Ze3,Ae4; 36.Eh2,d5; 37.h5,d4; 38.Gc4,Gd2; 39.Zf1. 'Gd4 xa' jokaldiak ez zuen porrota baztertzeko, baina borroka gehiago eskaini bai. 39...Gg2.xa; 40.Eh3,b2; 41.Gd4 xa,Ec8. Txuriek amore eman zuten. ■





PATXI UIALAR. / IRUNEA

Zangozako uda, uda kulturala da aurten, ez da dudarik. Udala-
ren Kultur Etxeak egitarau opa-
roa prestatu du hilabete honeta-
rako, eta esan daiteke jaialdi
etengabea izango dela Aragoa
ibaiko herria.

Erdi Aroko afariak izaten ohi
dira duela hainbat urtetik hona
jende askoren erakargarri. Zan-
goza, Xabier, Liedena, Irunberri
eta Esako hotelek antolatuta
Zangozako Udal Kultur Batzor-
dearekin batera, uztailearen 7an
hasi ziren, hainbat berrietasun zi-
tuztela. Juan Cruz Cruz Nafa-
rroako Unibertsitateko irakas-
leak dietetikari buruz bi liburu
aurkeztu ditu — 'Erdi Aroko
dietetika. Arnaldo Vilanovako-
aren osasun erregimenaren libu-
rue' eta 'Erdi Aroko gastrono-
mia. Ruperto Nolakoaren sukal-
de-liburua' — eta afari guztien
aurretik Juan Cruz Cruz berak
prestaturiko pregoi bat irakurri-
ko duen pertsonaia izango da
aurten lehendabiziko aldiz. Bes-
talde, aurtengo afari hauentzat
inguruko ostalariek plater be-
rriak osatu dituzte, eskaintzen
diren menuak aberasteko.

Hiru afari gelditzen dira
oraindik, eta joan ez denak badu,
beraz, aspaldiko gastronomia eta
giro hura dastatzeko aukera.
Heldu diren hiru ostiraletan, gaur
hasita, Zangozako Karmengo
komentuaren Erdi Aroko klaus-
troan, gaueko 10.00etatik aurre-
ra, musikaz lagunduriko hiru
afari izango dira. Gaurkoan
Zangozako metal, egurra eta kai-
nabera taldeak joko du, eta heldu
den ostiralekoan Iruñeko Vagi
Concerti taldeak; hilaren 25ean
eginen den azken afarian Iruñeko
Carmen Arbizu izango da. Ohi
bezala, plazak mugatuak dira, eta
erreserba egiteko 43 04 97 tele-
fonora hots egin behar da,
16.30etatik 18.30ak arte.

Abuztuan ere, artisautza mer-
katuak paratuko dira afariak egi-
nen diren toki berean, eta ostiral
orotan, gaueko zortzietatik aitzina,
Zangoza inguruko artisa-
u gehienek hartuko dute parte.
Beira, zura, ardoa, ezitia, paste-
lak, zeramika, pintura, oihalak...



Zeramika ikastaroak, Antzinako Merkatuak, Erdi Aroko Afariak,
jaialdiak, lehiaketak, dantza topaketak, artisauen merkatuak...
Abuztu kulturala izango da zeharo Zangozako. Gutxi eskain de-
zake hainbeste, baina bertako kultur etxeak egitarau ikusgarria prestatu du
aurten, Nafarroan den aberatsenetakoa.

Zangozan, abuztu kulturala

denetarik izango da saltzeko
prest.

ANTZERKI UMORETSUA JAIALDIETAN

Horrekin batera,
Nafarroako
Jaialdiek bete-
bete harrapatuko dute hurren-
go astean Zangoza, eta hiru egun-
etan zehar, umorea eta antzerki
komikoa izango da protagonista.
Asteartean, hilak 15, Esteve y
Ponce bikoteak 'Los pajaros
fontaneros' ('Txori iturginak')
izeneko lana aurkeztuko dute
Labrit zinema aretoan, gaueko
10.00etatik aurrera, eta asteaz-
kenean Yllana taldeak, 'Muu!'
antzezlanak aurkeztuko du toki
eta ordu berean. Madrilgo kon-
painia honek zezenketen ingu-
ruan osatu du bere azkenurreko
lan hau —udazkenean Tuteran
aurkeztuko du 'Glub, glub' az-
kena—, eta, egoera bitxi eta ba-
rregarrien bidez, festaren ingu-
ruan dauden lepotik barre egi-
ten dute. Umorezko ziklo horre-
kin amaitzeko Los Los talde ka-
taluniarrak 'Pòurquoi pas?'
('Zergatik ez? ') izeneko lana

antzeztuko du ostegunean. La-
burpena: bi morroik elkarri esa-
ten dizkiote ezbeharrak oilasko
bat erretzen zaien bitartean.

Dantza ere erruz izango da
Zangozan, eta bihar, larunbata,
Berako Gure Txokoa taldea ari-
ko da Prau izeneko tokian. Be-
rako dantzak eta trikitixak aur-
keztuko ditu. Hilaren 19an Gas-
teizko Oketa taldeak Arabako
Errioxako dantzak taularatuko
ditu Las Arcadas-en, eta abuz-
tuaren 26an, Los Pozancos-en,
Donibane-Lohizuneko (Lapuri-
di) Begiraleak taldeak eskainiko
du bere lana.

Irailean Antzinako
Merkatuak helduko
dira Zangozara. Ar-
kupeetan kokatuko
dira artisauak, eta ez
da faltako Erdi Aroko
garaiko animazioa
eta giroa.

Merkatuak,
dantza
ikuskitunak eta
zeramika
ikastaroak eta
topaketak izango
dira abuztuko
ikuskitun
interesgarrienak.

guntzari esker. Topaketa hauek
alde teoriko eta praktikoak jo-
rratuko dituzte, eta Kultur
Etxean eta Arkupetan egingen di-
ra. Astelehenean hasi ziren jar-
dunaldiak eta igande honetan
amaituko dira, eguerdiko ordu
batean. Ekitaldi guztiak Concha
Cilbeti zeramikagileak koordi-
natuko ditu, eta zeramika, mate-
rial gisa, bere ezaugarriak, tekni-
kak eta antzeko gaiak lantzeaz
gain, labe bat egingen da, egun
hauetan partaideek egingen di-
tuzten lanak bertan egos ditzaten.
Ikastaroarekin batera bisita egi-
nen diete inguruko hiru artisa-
uri: Irunberriko potegile bat, eta
Zangozako beira-egile eta burdi-
na-egile bi.

Gaur, bestalde, arratsaldeko
zazpi terdietatik aurrera, ma-
hainguru bat izango da Nafa-
rroako gaurko zeramikagintza-
ren egoera aztertzeko. Han izan-
go dira Isidro Lopez Murias, Ga-
briel Inbuluzketa, Angel Garra-
za, Juan Cruz Labeaga eta Con-
cha Cilbeti. Partaideen asmoa da
historian zehar zeramikagintzak
izan duen bilakaera aztertzea,
egungo kezka eta arazoak pla-
zaratzeko, eta bakoitzak, espe-
rientzia handiko zeramikagileak
diren, ikusi edo antzeman di-
tuen intereseko beste gaiak.

Halaber, Iruñeko eta Korella-
ko Arte eta Lanbide Artistikoen
eskoletan eta beste zeramika tai-
lerretan aritutakoekin fitxategia
osatuko da, «Zangozak betidanik
izan duen tradizio bat berreskura
dezan, eta Nafarroako zera-
mikaren nukleo berria izan dadin»,
antolatzaileek diotenez.

Horri laguntzeko, asteartetik
zabalik dago gaur egungo zera-
mikari buruzko erakusketa. Ha-
mabi dira euren lanak paratu di-
tuzten artistak, eta horien artean
azpimarratzekoak dira Eukeni
Kaiejo, Tote Garcia, Angel Ga-
rraza, Pepe Lopez Tazon edota
Concha Cilbeti.

**ZERAMIKARI
BURUZ
TOPAKETAK** Programazioari
jarraiki, aste ho-
netan zehar zera-
mikari buruz topaketa batzuk
antolatuko ditu Zangozako Udalak,
Nafarroako Gobernuaren dirula-

«Espetxeak kanpokoekin loturak apurtzeko eginak daude»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

Joan den asteazkenean atera zen Iruñeko espetxetik Mikel Usetxi intsumiso iruindarra, han 21 hilabete eman eta gero. 3. graduari planto egin zion lehen taldekoa, berak bizi ditu egoera honek sortu dituen aldaketa guztiak, eta barruan dauden intsumiso presoan ani-

go hiru hilabeteak izan ziren munduko gauzarik mantsoena. Hasieran oso azkar joaten dira egunak, dena berria delako, eta funtzionamendua ikasi eta ezagutu arte eman beharra duzulako denboraldi bat. Hori entretenigarria da, baina Iruñeko presondegia oso txikia da, eta berehala ezagutzen dituzu funtzionarioak, presoak eta

giotzat har daiteke akaso. Zer moduzko harremana izan zenuen gainontzeko presoekin? **USETXI.**— Ez ziren pribilegioak. Guk egiten genituen batzarrak, eta botatzen bagintuzten aurpegia ematen genuen. Beste presoek ikusi zuten, horrela, ez ginela kaka-zuak, aurre egiten genielako funtzionarioei, eta haien

guztiak han ginen, baina azkenean elkar ulertzen genuen. Tirabirak, berez, txorakeriak dira, hemendik begiratuta. Barruan garrantzi handia ematen genien, taldearen irudiari buruzkoak, edo estrategia politikoei buruzkoak zirelako.

EGUNKARIA.— Aldatu da espetxeari buruz zenuen ideia?

USETXI.— Nik ez nekien ezer kartzelari buruz, datu batzuk izan ezik. Orain badut ideia bat hor dagoen jendeari buruz, eta badakit zanpatuta daudenak direla. Gainera, gure egonaldian zehar izan dira kartzelaldiak, eta alderatzeko aukera zegoen: horiei ematen zieten edozer gauzarengatik 15 eguneko baimena, eta hemengo presoek, bi eguneko baimena lortzeko, hilabeteak behar.

EGUNKARIA.— Sortu izan dira zuen artean 'zer egiten dugu hemen?' bezalako galderak

USETXI.— Ez dakit inork seriooki pentsatu ote duen, baina txantxa asko egin ditugu horrekin. Geure buruaz barre egiteko modu bat izan da, batez ere. Horrelako galderak beti egiten dira, baina seriooki planteatuta batzar batean —hau da: galdetzea egokia ote den eramaten dugun estrategia, ez garela ezer egiten ari, eta antzeko gauzak—, ez da inoiz izan.

EGUNKARIA.— Sumatzen da barrutik kanpoko giroa, mobilizazioa, laguntza?

USETXI.— Teorikoki oso hurbil gaude, baina praktikan urruti ginen. Baten bati bisita batek zerbait kontatzen bazion, gero horrek denei kontatzen zien, eta informazioa, beraz, erabat desitxuratuta helitzen zen, galdu egiten zen esanahia. Beraz, zer gertatu zen erabat aldatuta etortzen zitzaigun. Kartzela, azken finean, horretarako pentsatua dago: kanpoko harremana apurtzeko. Gure kasuan ez da hain markatua izan, politikoen kasuan bezala, baina izan da.

Mikel Usetxi

Intsumisoa



SOSIATA

Irratizalea

Barruan bizi duena hitzez azaltzeko zailtasunak dituela aitortzen du, eta oraindik ez omen da erabat ohartu kanpoan dagoela, «etengabeko parranda izan delako atera nintzenetik». Baldintzapeko askatasunean egon beharko du maiatzera arte, eta hemendik aurrera gustukoen duen alorrera itzuliko da Mikel Usetxi, Eguzki Irratira, hain zuzen. «Ni ez naiz inoiz izan antimilitarismoaren defenditzaile sutsua, beste alorretan aritu izan naiz. Baina hau egokitu zait eta gustura egon naiz, lan egin dut. Orain, berriro irratira eta Ortzadar taldera, lan egitera, itzultzea gustatuko litzaidake».



Baldintzapeko askatasunean dago Usetxi.

JOXE LACALLE

mua eta bizimodua apur bat zehazteko aproposa da oso.

EGUNKARIA.— Lehengoan 'Giltzapeko paranoiak' aldizkaria aurkeztu zenuten. Gai nagusia zen denborak kartzela barruan hartzen duen esanahia. Zuri nola joan zaizkizu 21 hilabete horiek?

MIKEL USETXI.— Denbora, azken batean, kalean bezalakoa da, baina egunak ez ditu 24 ordu aprobetxatzeko, baditu lau ordu goizean eta lau arratsaldean, eta hori zigorturik ez zaudenean. Edozer egiteko zortzi ordu horiek dituzu. Motza egiten da bukatzerakoan, baina barruan zaudenean, luzea. Baina denbora luze edo motz egiten da denboraldien arabera. Adibidez, iazko iraillean, intsumiso batzuen sakanaketa izan zen, eta hurren-

jende guztia. Hortik aurrera dena da monotonia.

EGUNKARIA.— Gogorra izango da hasierakoa pasata datorren monotonia.

USETXI.— Segun eta. Iruñeko intsumisook kartzelan eman dugun era ez da batere normala. Hasieratik hasi ginen batzarretan, kartelak egiten, kexu kolektiboak egiten, ezohiko ekintzak kartzela barruan. Talde handi bat ginen, baina dena berria zen, ez baikenekien zer egin behar genuen botatzen baldin bagintuzten, oihi egiten baldin bagenuen, edo, besterik gabe, protesta egiten baldin bagenuen. Gure dinamika, beraz, preso ohi-koenarekin alderatuta desberdina izan da.

EGUNKARIA.— Batzarrak, protestak-eta egitea, pribile-

errespetua irabazi genuen. Ez da arazorik izan, gaizki-ulerterez bat gora-behera.

EGUNKARIA.— Zuen ondotik etorri ziren planto gehiago, jende berria. Zer moduko giroa izan da denbora honetan?

USETXI.— Oso ona. Batzuetan izan ditugu gure tirabira gogor-gogorak, baina gutxitan. Gainontzean oso gustura egon gara, batzarretatik kanpo multzo bat izan garelako, batuta zeharo. Bikaina izan da.

EGUNKARIA.— Zergatik tirabirak?

USETXI.— Hor barruan jende asko dago, eta bakoitzak badu bere egoera pertsonal berezia. Badira talde politiko guztietako ordezkariak, eta izan ditugu eztabaidak, baina konpondu egin dira gero. Nafarroan aurki daitezkeen egoera politiko

LUCRANDO

LIRIKAZ
HONATAGO

GAUR:

BURDIN

BIYOTZ
BATHAIZEBOZ
-PAMELA-

GENTIL ZAR BATEC

METAL PUSCA BAT
ESCUAN DUELA

OLA GUIZONEI OTOIZCA:

Eidazue biyotz bat enamoratu naizela!



ZALDI ERDA